

## **EMAKUMEA ETA ILARGIA**

### ***Gernika-Lumoko kondaira zaharra***

Gernika-Lumoko Amille auzoan bazegeon emakume bat beldur handia zioena ilargiari eta batez ere ilbeteen sortzen zuen itzalari. Hori dela eta, ilundu orduko korrikan ikusten zitzaion beti. Egun baten berandutu egin zen. Bere itzala ikusitakoan arimaren baten agerpena zela pentsatu zuen eta korrikan alde egin zuen. Etxeranzko bidean, beste emakume batekin egin zuen topo. Azken honek galdetu zion:

- Nora zoaz?
- Atzetik dator!, atzetik dator! –erantzun zion lehenengo emakumeak guztiz beldurtuta-.

Bere itzala baino ez zela argitu arren, emakumeak korrikan jarraitu zuen.

Bigarrenak emakume beldurtiaren atzetik atera zen. Harrapatu zuenean aurpegikoa eman zion bere egoera berezi hortatik atera nahiean. Gero esan zion:

- Zeu ikaratu eta neu ikaratzen nauzu!.

**Vicente del Palacio eta beste batzuk.**

Historia de Lumo

Gernikazarra Historia Taldea

Gernika-Lumo, 1999